

bidegileak



Maite Barnetxe (1941-1986)

Egilea:

XIPRI ARBELBIDE

«Bidarraitarra nauzu»

*M*aite Barnetxek bere egiten zuen Ñaro bera bezela bidarraitarra zen bertsulariaren kantu hori. Bidarrain sortu zen, *Arlanetxeberrian*, Garazirat doatzin erregebide eta trein bidearen artean. Ama, Aña Castorene, Xuhurraenekoa. Aita, Manez Ameztói, Begiederrekkoa. Baxe nabartar guziek lotura zerbeit baitute Amerikarekin, amatxi Venezuelan sortua zuen. Zoazte jakitera nolaz ez Txile, Uругuai, Argentina edo Kalifornian, beste guziak bezela?

Aita zurgina zeukan, bainan laborari-
garia epaiten zutelarik, joiteko makina-
rekin ibiltzen zen etxez etxe.




Maite Barnetxe (1941-1986)

Etzetik berrogoi metrotan pasatzen baitzen trenbidea, batere asfaltatzekoa zen herriko bide txar batek kurutzatzen zuen. Beribilik guti pasatu ditake behin ere. Artetan behior-
ga pare bat belar egiteko sasoinan, zenbeit dotzena ardi eta dotzena erdi bat behi bazka bazelarik alatzeko, nehorat ez baitzoan ez bada Errobi ibaiaren eta trenaren artean dau-
den pentze edo belardi bakar batzuetara.

Bainan ate bat bazen eta atezain bat bere etxetoarekin, trena pasatzen zen aldi oroz atea hesteko (egunean dotzena erdi bat aldiz). Ate hori zaindu zuen amak 1957tik 1980ra, errentabilitateak segurtasunari gaina hartu zion arte.



Arlanetxeberria, Maiteren etxea Bidarrain



Hegazkinetik hartua: goian Maiteren etxea, behean trenbideko etxetoa

Maite Ameztoui Castorene, Frantziako legearen arabera ezkondukoan, senarra bezela, *Barnetxe* etxean sortu zen 1941ean, garai haietako amak ez baitziren kliniketara joaten! Urik ez zuten oraino etxean. 100 bat metro-tan zen punpa batetara joaten ziren urketa egun oroz. Argi indarra ere gerla ondoan baizik ez zuten ukan. Ordu arte, petrolio lanpa batek zituen zerbeit gisetara ilunbeak hausten gaua jaustearekin.

Gerla garaietan, alemanak Bidarrain ziren. Gauaz ateratzea debekatua zen. Gau batez Maite ttipia eritu, harria bezen gogor eman. Amak oihuka deitu zuen auzoa. Hau etorri, bainan alemanek gelditu zuten, nahiz eta utzi jakitearekin auzora zoala, haurra gaixo zela-kotz. Donibanetik etorri medikuak manatu zion haur ttikia boketa egiteko baliatzen zuten xurruñoan mainatzea ur bero-beroan! Eta Maite sendatu!

Sei urtetan Bidarraiko eskolan abiatu zen, handik zenbeit urteren buruan emankizun batetan goretsiko zuen eliza erromanikoa-ren ondoan. Bere zango ttipiek oinez egiten zituzten, etxetik eskolarako bi kilometro eta erdiak, euri ala iguzki, hotz ala bero. Gogotik gainera, ikastea gustatzen baitzitzaion. Hamabi urtetan, Bidarraiko errientak irakasten ahal zizkionak ikasiak zituen. Kolegiora joan nahiko zuen. Irakasleak ere zioen ikasketak segitzeko on zela. Bainan etxen ez zen aski diru horretarako. Eta etxean gelditu zen.



Maiteren aitamak



Maiteren aita-amen ezkontza



Maite 4 urtetan



Jaun hartze egunean 11 urtetan

Orduan etorri zen Arbeletxe erretor berria. Maiteri galdetu zion ea gustatuko litzaiokeen harmoniuma joitea elizan. Baietz. Joiten ikasi behar zuen eta horretarako Uztaritzeko seroretara joan. Astean bi aldiz egiten zuen joan-jina. Handik itzultzean, egun batez amari erran zion: «Ama! Daktilo eta ezteno ikasketak egiten dira seroretan. Ikasketa horiek gusta litzaizkidake» Eta horrela zuen ikasi, musikarekin, idazkaritza lana eta diploma eskuratu.

Auzoko emazte bat ari zen, geroztik Dassau-tek beretua duen Parmeko Bréguet hegazkin lantegian, Biarritzen. Lan bat izateko lantegi horretara idatzi zezan erran zion. Maitek idatzi eta eza ukan. Tolosako zuzendaritzara ida-

tzi zuen orduan auzoak eta berehala baia etorri zen.

Hona gure neska gaztea Bidarraitik Biarritzen. Yves Bruno, hegazkin berrien entseguak egiten zituen pilotoaren idazkari eman zuten. Lana biziki interesanta zuen. Zazpi haurren aita horrekin laketu zen, oso ona baitzen, oso gizona. Harremanak ezin hobeak zituzten.

Breguet Atlantique hegazkinaren entseguak egitean ixtripu bat izan zuen eta hil. Gero, Maite batere ez zen ongi konpondu haren ordainarekin. Beste lan baten bila hasi zen. Breguet lantegia zerbeit zen hemen garai haietan. Eta postu ona zeukan hor. Bainan beste lan bat non izanen zen, begia erne egon zen ordutik.



Maite, ezkerretik bigarrena beherean



Uztaritzeko seroren etxe honetan ikasi du daktilo eta estenoa

Aireporturik irratira

Radio Côte Basque 1961ean sortu zen hemen, Biarritzeko kasinotik ari zen Parisko irrati ofizialaren adarra, udan, hilabete bat eta erdiz. Iparraldeko 250.000 euskaldunentzat ez zen irratorik urte osoan, baina 15 egun oporretara etortzen ziren zenbeit dotzena mila paristarrentzat, irrati bat ariko zen hortik harat, urte oroz.

Ez zuten euskaldunik bazenik ere gogoan hartu irratoria sortzean. Baina Jean Garreto baitzen emankizun horien arduraduna, bi zilo bazituen bere programazioan. Pantxo Etchezaharreta Donibanekeko irrati saltzailea ezagutzen zuten mundu horretan, honek lagundu baitzituen antenak ematen Larrun gainean.

Honekin, solasean ari zirela, aipatu zituzten delako bi zilo horiek: oren erdi bat ostegune-

tan, oren bat eta erdi igande goizetan. Etchezaharretak pilota punpean hartu berehala eta proposatu zilo horien tapatzea, euskaraz. Haiek ere lan eginarekin akort, eta euskarazko emankizun horiek deus ez zitzaizkiela gostako ikusirik, baia eman zuten. Urrun, arrotz herri zenbeitetan zirelako sendimendu gozoño bat ere sendituko zuten turistek zenbeit minutoz. Horra nola sortu ziren lehen aldikotz euskarazko emankizunak Frantziako irrati ofizialetik, Iparralde honetan.

Ikaragarriko arrakasta izan zuten berehala. Gaitzeko lana egin zuen hor Piarres Larzabalek, Telesforo de Monzon, Roger Idiart, Marie Jeanne Minaberri eta beste zenbeiten laguntzarekin.

Baina udatiarrak joan eta agur irratia! Gaineratiko urte osoan deus ez. 1963an era-



Breguet hegazkin lantegia Parm, Biarritzeko aireportuan

baki zuten zerbeit egitea urte osoan. Idazkari lanpostu bati buruz, lehiaketa bat egin zuten. Gorago ikusi bezela bere lanean ez gostuan, eta Maite gazteak bere izena eman zuen, hartua izan eta berehala idazteko makinaren ondoan, mikroa ere jasta arazi zioten. 1962an



Ezkontza Guy Barnetxekin, Bidarraiko elizan



Ezkontza herriko etxean

Izpurara ezkontdua Guy Barnetxekin eta egun oroz, treinez egiten zuen Baionarateko joan-jina. Baionako herriko etxean zeukaten beren estudioa, teilatuaren pean.

Irratiko talde osoa lau kidek egiten zuten. Emankizun guziak frantsesez baizik ez ziren. Oren laurden batena zuten egunean. Ez gehiago. Gaineratikoa, Paristik.

Maite ez zen berrietan ari, baina *magazina* moldeko emankizunak egiten zituen bereziki gaztekin, asteartetan. Hala nola gazteak lan bila, edo lanean. Ospitaleko gazteekin egin zuen emanaldi bat.

Eta 1966an, egun oroz bost minuto euskaraz egitea erdietsi zuten eta oren erdi bat igandetan. Euskarazko emankizun horiek interesatzen zuten galdetu zioten. Baietz. Eta holaxet hasi zen euskaraz, behin ere ez zitzaizlarik gogoan pasatu ordu arte, egun batez euskaraz aritzen ahalko zenik irrati batetan. Gainera, Bidarraiko euskara hura, zekien bakarra, apur bat arrotzia zitzaion. Baina hasi zen eta gustu hartu.

Berak aitortzen zuen euskara hortaz kanpo deus ez zuela ezagutzen ez Euskal Herriaz, ez euskaldunez. Bere lanari esker, lehenik irratiari, gero telebistan, ikasi zuen euskaldun izaten. Jenderi esker ohartu zen zer-nolako aberastasunak diren Euskal Herrian. Euskal mundua, euskal kultura, Euskal Herria emeki-emeki ezagutu ditu, ariz. Urrats berak egin dituzten euskaldunak milaka dira, hari esker, harekin betan.



1975ean: Radio Côte Basque eta telebistako bi taldeak gehi zenbeit gomita. Erdian, handiena, Jean Pôl Guguen irrati-
kuzendaria; honen eskuinean Christian Bombediak Sud-Ouest egunkariko arduraduna; ezkerretarik: Maite

Ez zen mirakuilurik segurki. Goizetan bost minutu lerro-lerro beraz lehen batean. Astegunetan, egun bakotxak bazuen bere mintzalaria bakotxa bere gaiarekin: Beñat Dassance laborantzaz astelehenetan, Sauveur Narbaitz errienta lehenik eta gero Ramuntxo Kanblon kulturaz asteartetan, Gexan Lantziri eta gero Henri Duhau sozialaz asteazkenetan, Jakes Etxeberri *Herria* astekaria aurkezteko ostegunetan, Jan Battitt Dirassar pilotaz ostiraletan, Narbaitz kalonjeak frango librea zeukala bidea larunbatetan. Maite denen arduradun.

Laster, Maite Barnetxe eta Jan Battitt Dirassar gelditu ziren bakarrik. Ez zen informaziorik sartu behar euskarazko emankizunetan nahiz Dirassar kasetari profesionala zen. Ez goizetako 5 minututan, ez eta asteen behingo oren erdian. Dena bai, baina hori ez! Magazina moduan mugatu behar zuten. Zer nahi gerta zedien hemen, ez zuten aipatu behar. Mintza laborantzaz, mintza pilotaz, edo kulturaz nahi zuten bezenbat, baina ez hunki aktualitatea.

1970ean izan zen Burgoseko auzia. Mundu guztitik etorriak ziren kasetariak honara.



Etxea, Baigura, Hartzamendi eta Iparla mendien artean

Denetan ez zen besterik aipu. Egun haietan Maitek ere mintzatu behar mikroaren aintzinean. Denak horretaz mintzo eta ez zekien zer erran. Ez zitekeen Baigurako pottoketaz mintza, besterik deus gertatzen ez balitz bezela. Bordaleko nagusiari bai eta hemengoari galdetu zien ez ote zuen harek ere zerbeit erraten ahal auzi horretaz. Ezetz eta ezetz. Mikroan ez zuen hitzik erran eta pasatu zuen kantu bat: Xabier Leteren «Eta poeta, eta poeta». Egia, Maite ez zela kasetari profesionala, baina harekin ari zen Jan Battitt Dirassar bai.

«Frantsesez eta euskaraz emana den berri bat, ez da gauza bera», erran zioten Bordaletik. Maitek zioen egia zela, jendek ez dutela berri bat berdin hartzen frantsesez eta euskaraz. Bere mintzairak jendea barnagotik hunkitzen duela. Eta garai haietan gainera, irratian errana izateak halako indar bat ematen zion berriari.

Garai berean ordu batetara pasatu zen igandetako euskal emanaldia, berriak ere emaiten hasi ziren, baina Baiona inguruan baizik ez ziren entzuten.

Telebista

971ko irailean izan zen telebistaren aldi euskararentzat, Mixel Intxauspe deputatuak eskaturik eta erdietsirik. Oren edo ordu laurdeneko magazina zen hilabetan bi aldiz. Hilabateko lehen eta hirugarren larunbatetan pasatzen zen arratsaldeko seiak eta erditan. 80ko hamarkadan erdietsi zuten bigarren pasaldi bat izatea, 2 eta 4. larunbatetan, azpitoluluak frantsesez idatzirik bigarren pasaldi honetan. Hogoi urtez hori izan da Euskal Telebista bakarra, ETB sortu arte!

Emankizun hori egiteko, langile dei bat egin zuten. Maitek bere burua aurkeztu egundainokotan. Bazen hautagai asko.



Baionako besten idekitzea: Maite, Herriko etxean, irratiko leihotik



Bulegoan 1966an



Bidarraiko eliza



Euskal zine jardunaldiak Sestaon: Juan San Martinek trofea ematen dio Xantal alabari. Ama zendua zen

Bat Paristik. Bordaleko zuzendariak Maite deitu zuen: «Duela zenbeit urte nehork ez zuen irratian ari nahi. Zuk egin duzu lana. Orai telebistaren aldi da. Xantza ematen dizut. Gustatzen baldin bazaizu segituko duzu. Bestenaz, bertze norbeiti emanen diogu».

Horra nola pasatu zen irratitik telebistara. Molde jarraikian izan diren euskarazko lehen telebista emankizunak. Gure mintzairaren historiako gertakari nagusi bat eta Maite istorioko lehen telebista emankizun egilea euskaraz. Ez zuen uste gabetarik sortu Maite Barnetxe saria ETB-k 1994an. 1988an Zestoako herriak eman zion Euskal zinemaren saria. Bainan alferretan bilatuko duzue Maite-ren izena gure kulturaren «kutxak» diren entziklopedietan! Lehen Euskal Telebista egin zuenik ez dakite! Horiek egin dituzten erredaktore, aholkulari, zuzentzaile, oharregile eta gaineratiko taldeetako adituek ez zekiten Maite Barnetxe bat izan denik ere.

Telebistan deus ez ezagutzen eta hasieran, Bordaletik igorri zioten errealizadore bat. Lehen hiruzpalau emanaldiak berak prestatu zituen. Honekin ikasi zuen nola filmatu eta nola egin montaiak. Gero denak bere gain.

Lehen emankizunentzat, hartu zituen gai erretxak, ezagutzen zituenak: Bidarraiko eliza erromanikoa, Izurako historia, kantari batzu, bertsulariak. Lana gustatu zitzaion eta bide berriari jarraitzea erabaki zuen. Irratian emankizun bat egiten segitu zuen igandetan.

Hiru urtez ari izan zen egoera baxtert batean: ofizialki ez zen kasetari, ez zen errealizadore. Nagusi bat Paristik etorri zelarik errantzion errealizadore titulua izateko, beharko zuela Paris edo Estrasburgo, norabait joan hiru urtez, hemendik urrun.

Ezetz, ez zuela Santizpiritako zubia pasatuko. Azkenean, honenbetse urtez lan egin ondolan, honenbeste emanaldi egin eta titulua eskuratzeko ahala bazuela jakinik, delakobaldintzak bete eta, errealizadore titulua eskatu zuen eta eman zioten hemen berean egonez.

Hiruehun bat emanaldi egin ditu orotara, heldu baita 75 bat oren. Ez dira aktualitateari lotuak, izaitekotz dokumentu modukoak. Molde guzietakoak.

1983an emanaldi bat egin zuen Hazparneko zapata lantegien krisiaz. Emanaldi horretan ikusten da Hazparne industrialisatzen. Nola etorri zen lana eta gero nola sartu ziren krisian, zergatik. Gaur ere pasatzen ahal liteke den bezela.

Etxahun, Mattin, Xalbador, Dongaitz, Lafitte, Narbaitz eta hemengo beste gizon ezagun aintzekin ere egin ditu emanaldiak. Emankizun horiek gelditzen dira lekuko bezela.



1978an eskuratu telebista errealizadore ageri ofiziala



Irratiko bulegoan

Ezin ahantzizko emanaldiak

Hiruehun emanaldi horietan bazituen batzu ezin ahantzizkoak. Etxahunekin hiruzpalau egin zituen. Elgarrekin ibili ziren iruritarrak maite zituen tokietan, Madalenako mendixkan barna. Nehork ez duke Maitek bezenbat elkarrizketa egin Etxahunekin. Emanaldi horietarik batetan erran zion dolu zuela euskara behin ere ez ongi ikasirik! Etxahunek!



Donbane Lohizunen, antxoar arrantzaz egin emankizun bati buruz lanean, 1974ko ekainean

Hamabost urtez izan diren pastoral gehienak grabatu ditu, ez osoan, baina oren erdi bate-tako laburpena gehienetan. Ez zen orduan bideo eta horrelakorik eta Maiteren grabape-nak dira pastorek urte haietan hartu bihur-gunearen dokumentu bakarrak.

Dongaitz pilotariarekin egin zuena ere gogo-an zeukan. Norbeit izana zen. Bere bizia konda arazi zion. Pilotan ari izan zen laurogoi eta bospasei urtetan, trinketeko «xokoan»! Durruty, Gaby, Lemoine, Boudon eta beste pilotaririk ere filmatu du.

Aipatzea gustatzen zitzaion beste emankizun bat: Lekornen oraino iruten aritzen zen Ana Daxari Markari xaharrarekin egin zuena. Donibane Garaziko merkatuan gaindi ibili ziren, laurogoi eta hamahiru urte zeuzkalarik. Semearentzat aterki bat erosi nahi zuela eta denda batetan sartu ziren. Baitezpadakoa zen, parasolak gider ederra izatea!

Bidean galdetu zion Maiteri «Zenbat balio du zuen tresneria horrek» Harritu zen «sei milioi libera». (1,5 milioi pezeta) entzun zuenean: «Oi ei ai ei! Sei milioi! Sei milioi!». Bere bizian ez zuen behin ere horrelako diruketarik ikusi, urrunerat ere. Joan aintzin fandangotan ari izan zen saltegiaren aintzinean.

Makaia Elixagako Kanblon kontrabandistarekin bi emanaldi egin zituen. Jeanine Elizetxe Itsasuar emazte pilotoarekin beste bat. Gerla garaian, hemen zeuden alemanei ihesi zoatzinei muga pasa arazten zienekin ere. Xaharren

lekukotasunak gustatzen zitzaizkion. Berek erranik.

Gehienetan gaurkotasuna zeukaten emanaldiak egin ditu halere. Ikastoletaz grabatu dituenak biltzen balira, ikastolen historia egiten ahalko liteke.

Xalbadorrez eta Mattinez eginek ere hunki zuten. Xalbadorrez biga egin zituen, hil eta berehala. Bizi zelarik aipatuak zituzten baina... *Odolaren Mintzoa* liburua atera behar zela eta gerora utzi, liburua agertu eta hobeki egingen zutelakoan. Urepeleko Artzaina hil zen

igande goiz hartan elgarrekin mintzatuak ziren delako emankizunaz. Zoritxarrez ez du berarekin egiteko xantza izan.

Hil eta hiru asteren buruan egin zituen beraz bi emanaldi, oren erdi bat. Bihotzeko min handia zen orotan. Léoni bere emaztea, semeak, Mattin eta beste lagunak bero-beroan mintzatu ziren. Handik eta zenbeit hilabeteren buruan batere ez zen gauza bera izanen.

Behin ere pasatu ez den beste emankizun bat ere bada hor nonbeit. Mattin hil baino hamabost bat egun lehenago, emanaldi bat egin



Mendian muga harri baten ondoan



Bidarraiko herriak molde berezi batez egiten du Besta Berri edo Corpus besta. Hemen ikusten den Suisaren jauntziak hartu zituen Maiteren aita gaztea zelarik

zuen Arbonan bertsulariekin. Xanpun, Ezponda, Mixel Xalbador eta beste batzu bilduak ziren Mixel Itzainarekin. Apairu bat egin zuten elgarrekin, bertsutan ariz goxoki.

Ahetze, Mattinen herria, bi urratsetan zen. Bazekiten Mattin gaizki zela: dialisietan ibilki bi egunetarik. Eta Maitek pentsatu zuen ez zeakeela emankizun hori egin berari aipatu gabe gutienez. Zenbeit egun lehenago telefonatu zion hor izanen zirela eta gustatuko zitzaiola etortzen balitz hura ere.

Mattinek, geldituko zela Baionaratekoan. Gelditu zen beraz. Mixel Itzainak erran zion Maiteri: «Behar duzu filmatu. Mintza arazi behar duzu, bere bizia konda arazi eta grabatu.» Egoera hartan zegoenari ez zion Maitek

galderik egin nahi. Itzainak berriz: «Azken xantza dugu. Gero berantegi izanen da».

Itzainak galdetu eta Maitek filmatu, oren laurden batez nunbeit han. Maite segur zen Mattin konturatu zela zer ari ziren. Burua oso ongi zeukan. Memento batez erran zuen: «Orai nekatua naiz, joanen naiz. Botako dut azken bertsu bat».

Bertsu hori kantatu zuen. Deneri musu eman eta joan. Emanaldi hori sekulan ez da zabaldua izan: agorrila zen, uda, euskal emankizunik ez sasoi horretan eta egun egoki baten begira zegoela, Maitek ere utzi gintuen.

Bere azken emankizuna, urte hartan barkoxtarrek eman zuten pastoralaz, erietxeko gelatik kudeatu zuen, Bernadette Argainek egiten zuela lana tokiaren gainean.



1968 Biarritz Paris linearen lehen hegaldia. Maite, goian

Arazoak

gun goxoak pasatu baditu ez uste izan beti, patar guziak ordoki zirenik. Izan ditu arazoak ere. Mattinena bezela behin ere pasatu ez zen beste emankizun bat bazuen. Ez, arrazoi beragatik! lholdin izan ziren toberak. Ez asmatu gai batetaz, baina zinezko gertakari batetaz: aintzira artifizial bat egin zuten, herriari bizi berri bat emanen ziolako ustekeriarekin eta horretarako eihera bat hetsi. Toberak filmaturik material guzia bildurik, Bordalera joan zen montaia egitera. Han beste musika-rik zen. Ez zuten montaia egitera utzi. Erran zioten: «Ez zara zentsuratua! Ez duzu oraindik montaia egina!»



1965: Xantal alaba besoetan

Ofizialki zentsura bazen, pasatzeko prest zen emankizun bat debekatzen zelarik. Zergatik zentsuratua izan zen ez du behin ere jakin. Ez eta nork. Ez zitekeen nornahi bere helburua lortu zuenaz geroz. Denak mintza araziak zituen bada, auzapezaren axuanta, eiherazaina, herritarrak, denak, bakotxak bere ikusmoldea ematen zuela.

Ortziken deitu kantaldiarekin ere izan ziren gorabeherak. Manex Pagola, Pantxo ta Peio,



1965 aitona, amona, ahizpa eta alabarekin 1965an

eta beste zenbeitek antolatu zuten kantaldi hori. Izigarriko arrakasta izan zuen. Bi emanaldi egin zituen Maitek, bai kantuak pasatuz, bai kantari eta kantu egileak mintza araziz, haue-tarik bat Telesforo de Monzon zelarik.

Lehen emanaldia pasatu zuen. Kantuen itzulpena egin arazi zion Bordalek norbeiti. Bazterrak harrotu ziren orduan! Pentsa! Kantuetarik bat zen «Parisen eta Madrilen», frango gogorra. Hori ez zuten irentsi. Kanpo-

ratua izatekotan izan zen Maite. Bainan beharrik, Mixel Labégueriek egina zen kantu hori eta hau senadore izanki. Ikusirik zer kenka txarrean zen, Maitek telefonatu zion: «Badakizu zure kantu hori batere ez zaiela gustatzen. Bainan batere ez gero!» Senadoreak afera eskutan hartu zuen eta horretan gelditu zen.

Bainan bigarren emanaldian agertzen ziren Roger Idiart eta Telesforo de Monzon besteak beste. Bordalek ez zuen emankizuna pasatze-

ra utzi: «Horrelako gizonak ez dute deus egitekorik gure etxean».

Beste behin Andde Duhalde eta Mixel Ducaurekin egin zuen emankizuna, Errobi taldeaz. Kantaldia filmaturik, montaia ere bururatu zuen. Emankizuna prest. Bordeleko adixkide batek telefonatu zion: «Zer duzu emanaldi hori, Maite? Kantu bat ba omen duzu amaren harmak hartu behar direla baitio. Kontuz Maite!» Salataria ez zen urrun! Euskalduna zen. Emankizuna pasatzearekin, Maitek bere komentarioarekin estalgi zuen kantuaren pasaia hori. Hitzak ez ziren entzun. Nehor ez zen deusetaz ohartu. Ez eta kanta-riak berak ere.

Handik eta aste baten buruan Baionan kurtzatzu zuen Dagouassat polizia komisario burua: «Bainan Maite, deus ez zen emankizun horretan. Deus ez zen!» «Zein emankizunetan?» Alegia harritua egin zuen Maitek. «Errobi, Maite! Grabatu behar ginuela errana ziguten eta entzun. Hiru Euskaldunek entzun dute. Bainan deus ez zen!»

Irratian ere izanak ziren zentsurak. 1981ean, Henri Duhau senpertarrak erran zuen emankizun batetan zer diferentzia zen nazioa eta estadoaren artean. Kanpo eman zuten. Ramuntxo Kanblon ere orduan gelditu zen Duhau-ri bere elkartasuna erakusteko. Maite baitzen ordu arte euskarazko emankizunen arduraduna, ardura kendu zioten. Beste arrazoi bat ere izan zuen erabaki horrek, egia erran: Hendaia-ko atentatua.



Ameriketan

Bar Hendayais ostatua tirokatu zuten *Batallón Vasco Español*-ekoek, bi hil eta hamar kolpatu eginez, bihi batek ezer ez zuelarik ikustekorik ETArekin. Biharamunagoan berria zabaldu zen kasetarien artean, baizik eta Txomin Iturbe hor zegoela eta beraz haren kontra eginga zela atentatua. Maiteren ustez berri hori prefekturak zuen zabaldu.

Irratiaren nagusiak erran zuen frantsesezko berrietan: «Ez da uste gabetarik gertatu atentatu hori: Txomin han zen».



FR3ko ekipa osoa

Maitek nahi izan zuen jakin nondik ateratzen zen informazio hori. Ostatura telefonatu zuen eta erran zioten ezetz, Txomin ez zela han. Euskarazko berrietan, Maitek erran zuen: «Zenbeitek diote Txomin han zela, baina segurtasunik ez da». Ez zitekeen zuzenki joan nagusiaren kontra, irratia berean. Ñabardura bat eman zion berriari.

Kaseta abertzale batek idatzi zuen gero zer erran zuen irratia frantsesez eta beharrik Maitek zuhurtasun gehiago agertu zuela. Hori irakurtzearekin, zuzendaria erotu zen. Heian bestek baino hobeki ba ote zekien Maitek. Besteak baino hobea ote zen eta horrelako.

Bordaleko nagusiari idatzi zion Maite ez zela euskarazko emankizunen arduradun izateko on.

ETAk Chaban Delmas bahitu nahi zuela erran zutelarik ere zernahi atera zen. Alde batetik baziren berri segurrak eta bestaldetik beste zerbeit erraten zen. Propaganda hutsa. Parmeko aireportuan jautsi zelarik, hemengo kasetalari batek erran zion zer kondatzen zen. Chabani eskapatu zitzaion: «Ez naiz puta bat».

Garai haietan ez zen bideorik eta pelikulekin ari ziren. Bordalera joan behar zuten muntaiak egitera, horrek ekartzen zituen gastuekin ala ordu aldetik ala kilometroen aldetik.



Bidarteko etxean 1976

Bestalde, euskarazko emankizunak egiteko hemen sortu lanpostuetaz baliatzen ziren Bordalen ere eta askotan hara joaten ziren hango lana egiteko, harat joateak gehitzen zituen gastuekin. Maitek senditzen zuen, talde hori hemen izatea, nekez jasaiten zutela Bordaleko nagusiek. Han, eskupean, kontrolpean nahiko zuketen.

Langile berekin egiten zutenaren doblea egin zezakeela pentsatzen zuen: ordu laurden bat

aste oroz, hamabostetik egiteko partez. Materiala bazuen ausarki, eta lanak zituen ordu laurden batetan mugatzeko. Baina beti hasierako ordu laurden horrekin gelditu behar izan zuen. Kortzikar eta betroinak euskaldunak bezela hasi baitziren, bien emankizunak luza-tuak izan ziren. Hala nola betroinak sei edo zazpi ekipetara pasatu ziren oren bat eta erdi emankizunekin hilabeteetan. Hemen beti hein berean. Beti oren laurden bat hamabostetik.



Xantal alabarekin 1985a



1981eko urtatzet Larrañen, Xiberoko azken otsoa hil zutelarik

Geroari begira

Duela mende laurden bat jadanik, Maitek pentsatzen zuen irrati eta telebistarik gabe euskararenak egina zuela. Eta ikusi ditu sortzen egun osoa euskaraz ari diren euskal irratia hemenean 1981ean, Euskal Telebista Hegoaldean 1986an.

Gure irratia-ri idatziz eman zion bere ikusmoldea. Berri sailak euskaraz, pilota partidak zuzenean, kantaldi grabatuak, mahain inguruak oso apreziatzen zituen. Berriak emateko moldeari zion aurkitzen ahulezia bat. Eta aspaldiko irratilariaren aholkuak eman zizkien hasi berriak zirenei.

Telebistari doakioneaz, euskal telebistaren adar bat hemenean idekitzea ongi ikusten zuen, hemenean egin emankizunekin. Bainan Frantziako irrati telebista publikoek ere zerbeit egin behar zutela zioen. Horretarako ahalak bazituztela.

Bestalde nahiko zuen euskaldun gehiago ikusi entzun-ikus ikasketak egin, jakinez gainera hortarako eskola bat badela Baionan Cassin lizeoan. Ainitzek uste baitute nornahik egin dezakeela irrati eta telebista, ez zuen horrelakorik sinesten.

Horrela hasi dira euskal kasetalariak ez baitzitekeen bestela egin, bainan formakuntza bat beharrezkoa zitzaion. Bestenaz beste nonbeitik etorriko dira hemengo lana egitera eta gure berriak guhaurek ematea hobe.



Mahain inguru bat irratian Donapaleuko ikastolaz 1976an



Xiberoan Pastoral batean

Euskaldunak eta telebista

Euskal emankizunak hasi zirelarik bai irratian, bai telebistan, «Enbata» kide batzuentzat hartzen zituzten jende ainitzek. Euskaraz egin guzia, politika bezela sentitua zen. Eta politika tzarra! Beha zeuden zer aterako ote zuten euskarazko emankizun horietan.

Gauzak aldatu ziren emeki-emeki. Ikusmolde guzietako jendeak mintzo baitziren. Jendea ohartu zen euskal emankizunak besteak iduriak zirela eta besteak balio zituztela. Euskara ez zekitenek ere ikusten zituzten azkenean emankizun horiek. Nehork ez zituen gehiago politika bezela ikusten.

Iraultza izan zen ere hemengo euskaldunen gogoetan. Lehen, Paristik etortzen ziren kamerak, noizean behinka. Jendea harriturik zegoen haien aintzinean: «To! Telebista!» Eta langile arraro horiei so egoten ziren, begiak zurutuak, zirkoko alimale batzu izan balire bezela.



Maiteren ekipa, (Deruelle mikroa eta Courtois kamera)

Emeki-emeki gutartekotu da telebista. Politika gizonak ikastaldiak egiten dituzte telebistan mintzatzeko. Maite etxeetan sartzen zen, sukaldean. Jendeak ez ziren izituak Maite ikustearekin. Etxekoak goxoan mintzatzzen ziren kamerarik bazela ere ahantzirik, batere beldurrik gabe, gostuan. Eta ederkixko. Emazteak uzkurrago egia erran. Gizona mintza zedien nahiago.

Jendeak maite duela gustatzen zaizkion gauzetaz mintzatzea erraten zuen: laboraria bada, bere behiez; artzaina bada bere ardiez, mendiez, gasna egiteko moldeaz; sukaldaria bada jatekoez; kirolaria bada, bere kirolaz ariko da orenak eta orenak. Gutartekoa bilakatu da telebista

Mendea nola aldatu den! Lehenago nahi zuten zerbeit ikusi beren herriaz edo beren ingurumenaz, egunkarian. Gero irratian entzun beren edo ezagun baten boza. Orai telebista nahi dute.



Robert le Diable pastoralean, Urdiñarben, 1976an



Faustin Bentaberriz egin emankizun bati buruz 1979ko ekainean

Bordalen ez zuten euskal emankizunetan sinesten: «Oi ei oi ei, Maite! Bi emankizun hila-betea? Baina zer aipatuko duzu? Bat pilotaz, bestea dantzaz, gero bertsolarietaz. Baina gero? Nola egingen duzu irauteko?».

Hiruehun bat emankizun egin zituen orotara eta bazukeen beste milaren egiteko gaia. Bere oren laurdeneko emankizunaz gain, beste emankizun moeta batzu ere amensten zituen.

Baina ez du amentsa gauzatzezeko paradarik izan berak. 45 urte betetzera zoalarik utzi gaitu, 1986ko uda azken egunetan zelarik. Beti bere oren laurdenean mugatua egonik. Berriki sortua zen ETB-k egingen zituen euskal telebistaren beste urratsak. Eta 1992ko azaroan hasi zuen Iparraldearen orena, Iparraldean finkatu talde batek, Iparraldearentzat eginga. Maiteren ametsa!

Hona, Jean Louis Davant xiberotar euskal-
tzainak egin zizkion bertsuak, joan zelarik:

Botz ernea jeiki zen
Emazte begitartez
Esperantzaren oihu
Jalgi hadi kanpora

Botz ederra jalgi zen
Kaiolatik hegalez
Erramua mokoan
Ixilen mezulari

Botz alaia horra zen
Etxekandere bipil
Populu baten ele
Sukaldeko leihoa

Gazte izana gatik
Denen ama joan zara
Ainararik ez dugu
Sukaldeko leihoan

Ez gaitzazula utz Maite
Kabia bat baduzu
Bihotzen axolbean
Sukaldeko leihoan

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka honen material grafikoa ondorengoei esker lortu du:

- *Barnetxe familia*
- *Xipri Arbelbide*
- *Daniel Velez*

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2002ko abendua

Ale-kopurua: 2.500

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Joseba Olalde

Fotokonposizioa: E.P.S., S.L.
Herminio Madinabeitia, 18 - Pab. 3 - 01006 Vitoria-Gasteiz

Inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.
Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz

ISBN: 84-457-1861-4 (Lan osoarena)
84-457-1865-7

L.G.: VI-445/02

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística